

KONTROL MOZIOA

Herrerako Zardoia lantegietako osasungarritasun baldintzak hobetzeko

Izar Hernando Ibero EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, **kontrol mozio** hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2026ko martxoaren 16an Pertsonen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Hilabete luzeak dira Herrerako Zardoia inguruko lantegi zaharretan lo egiten dutela hamarnaka (ehundik gora) herritarrek. Bistakoa da fabrika horiek ez direla bizitza duin bat aurrera eramateko gunea, baina bertan dauden pertsonak ez dute beste aukerarik, kale gorrian lo egitea saihesteko. Zalantzarik gabe, egoera honetan dauden herritarrek inklusiorako bideak garatu ahal izatean datza egoera honen soluzio integralak. Alabaina, behin betiko irtenbideari itxaron gabe badira zenbait urrats emateko zailak ez direnak, eta Jolastokieta aldieretako baldintzak nabarmen hobetuko lituzketenak. Izan ere, fabrika abandonatu batean hainbeste pertsona pilatuta eta gutxieneko beharrak asetu gabe bizitzeak ondorio nabariak eragin ditu fabriketan dauden pertsonentzat baita inguruko bizilagunentzat ere.

Herrerako gune honetan hilabeteetan zehar pilatu den zakar mordoaz eta usain txarraz ari gara, besteak beste. Bizilagunek behin baino gehiagotan salatu duten moduan, auzuneko bizilagunentzat, fabriketan daudenentzat zein inguruko etxeetan bizi direnentzat, osasungarritasun eta higiene baldintzak oso txarrak dira; hala baieztatu zuen Udaleko Osasun eta Ingurumen saileko informe batek ere, “Zardoya Otis eta inguratzen duen lursailak osasungarritasunik gabeko egoera larria dutela”. Horregatik, halaxe zioen otsaila hasieran Ekialde Barrutiko Batzarraren gehiengoz babestutako idatziak:

“1. Donostiako Udal Gobernuari eskatzea Udalak ofizioz jarduteko eta udaleko zerbitzuak Zardoia lantegira bidaltzeko, oinarrizko jarduketa batzuk egitera (zaborra bildu, eta zaborrontziak eta komun mugigarriak jarri), baita egoki iritzi daitekeen besterik ere.

2. *Donostiako Udal Gobernuari eskatzea garbiketa lanen kostua eraikinen jabe Barenys S.L enpresari helarazteko.*

3. *Donostiako Udal Gobernuari eskatzea Zardoia lantegian dauden pertsonekin harremanetan jartzeko, bakoitzarentzat egokiena den ibilbidea diseinatzeko eta baliabideak eskaintzeko, hirugarren sektoreko elkarteekin koordinatuta, beren zaurgarritasun egoera arintzen laguntzeko.”*

Gorago esan bezala, osasungarritasun eta higiene baldintza makurren egoera hau hilabete ugari ari da luzatzen, eta otsaila hasieran Ekialde Barrutiak formalki eskari hau egin arren, Udal Gobernu ez da gai izan auzi honi erantzuna emateko. Fabriketan dauden pertsonen gizarteratze prozesu integrala egiteko beharrezkoak diren baliabideak jaso bitartean, gutxieneko osasungarritasun eta higiene baldintzak bete daitezzen bermatu behar du Udalak.

Hori horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA:**

- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari bete ditzala otsailaren 11n Ekialde Barrutiko Batzarrak Zardoia lantegi inguruetako bizi baldintzen inguruan eginiko eskariak.
- Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari ahalik eta azkarren egin ditzala oinarrizko jarduketak Zardoia lantegi-aldean, zaborra bildu eta zaborrontzi zein komun mugigarriak jartzea, hala nola.

Donostian, 2026ko martxoaren 20an

Izar Hernando Ibero
EH Bildu udal taldeko zinegotzia